SERIEAREN KODEA	0190

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO)	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Etxebizitzarako prestazio osagarria aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarria, eta ohiko etxebizitza edo bizilekua alokatzeko gastuak estaltzeko ematen da, haren modalitate guztietan: errentamendua, azpierrentamendua, baterako errentamendua, ostatu hartzea eta gelen alokairua. Etxebizitzarako prestazio osagarria eskubide subjektibotzat jotzen du Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak.	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Oiartzungo Udala Arloa: Zerbitzuak / Gizarte Zerbitzuak Saila: Gizarte Zerbitzuak Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez:X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Organismoa	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako data	Amaierako data
Toki-administrazioa	Gizarte Zerbitzuak	2005	

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpenaren data
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
Legea	18/2008	Gizarteratzekoa eta Diru-sarrerak Bermatzekoa	2008/12/23	EHAA, 250. zk.	2008/12/31
Dekretua	2/2010	Etxebizitzako gastuetarako	2010/01/12	EHAA, 111.	2010/01/19

		prestazio osagarriari buruzkoa		zk.	
Dekretua	**147/2010**	**Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.**	**2010/05/25**	**BOPV, 114. zk.**	**2010/06/17**
Legea	4/2011	Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena	2011/11/24	EHAA, 233. zk.	2011/12/12

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa
2.1.7	Seriearen hasierako data	2005
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	Artxiboa, 53 espediente

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**
- Eskabidea, arautua - Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren xede diren ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren gastuen egiaztagiriak, hau da, errentamendu-kontratua edo, hala badagokio, azpierrentamendu-kontratua, baterako errentamenduaren kontratua, ostatu-kontratua edo logelen alokairu-kontratua. - Zinpeko adierazpena, etxebizitzaren edo bizitokiaren errentatzailearekin edo haren familia-unitateko edozein kiderekin familia-loturarik ez izateari buruzkoa, 5.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. - Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa inskribatuta dagoela edo inskribatzeko eskatu duela egiaztatzen duten agiriak, inskribatuta egotea eskatzen bada. - Jabetzan edo gozamenean etxebizitzarik ez daukala jasotzen duen zinpeko adierazpena. - Zinpeko adierazpena, adierazten duena babes publikoko etxebizitza-motaren bateko etxebizitzarik ez duela alokairuan edo jabetzan, eskabidea egin zenean indarrean zegoen legerian aurreikusitakoaren arabera. - Etxebizitzarako prestazio osagarriaren helburu bera duen beste edozein prestazio ekonomikoren eskaeraren edo ematearen edo ukatzearen egiaztagiriak –edozein administrazio tartean dagoela ere–; horrez gain, adierazi beharko du zer organok ematen duen eta zein izan den kontzeptu horregatik eskatutako edota emandako zenbatekoa.	
2.2.2	**Administrazio-prozedura**
Interesdunak bere erroldatzea eta benetako bizilekua duen udalerriko udalari aldez aurretik igorritako eskabidearen bidez lortu ahal izango du etxebizitzarako prestazio osagarria. Eskabidea oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aurkeztu beharko du, eta zerbitzu horiek beharrezkoa den informazio eta orientazio guztia emango diote eskatzaileari eskabidea izapidetzeko. Dekretu honen eranskinean horretarako ezarritako eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko da eskabidea. Eredu hori interesdunen eskura egongo da EAEko udal guztietan. Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren eskaera Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaerarekin batera aurkeztuko da, salbu eta ohiko etxebizitzarekin edo bizitokiarekin lotutako premia-egoera beste eskaera hori egin ondoren sortu bada. Hala bada, ondoren aurkeztu ahal izango da. Eskatzailea erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalak izapidetuko du espedientea. Ahal den guztietan, saiatu egingo da aldi berean izapidetzen etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta prestazio horrek osatzen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.	

Udalak eskabidearen edukia eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuko ditu, bai eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria emateko baldintza espezifikoak betetzen diren ere.
Horretarako, beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal dizkie beste erakunde eta entitate publiko eta pribatu batzuei edo eskatzaileari berari, baina prestazioa baliatzeko bete beharreko baldintzak eskatzaileak betetzen dituela egiaztatzeko ezinbestekoak direnetara mugatuko da.
Era berean, ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen eta udalak berak dauzkan dokumentuak ere erantsi behar dizkio eskabideari udalak.
Eskatzailea erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriari dagokion lurralde historikoko foru-aldundiak gehienez ere bi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du prestazioa emateko edo ukatzeko ebazpena, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta gehieneko epe hauek errespetatu beharko ditu:
a) Espedientea osatu ondoren, eskaera aurkezten den egunetik hasita gehienez ere berrogei egun naturaleko epean, oinarrizko gizarte-zerbitzuek ebazpenerako txosten-proposamen bat egingo dute, eta dagokion foru-aldundian prestazio hori kudeatzeko eskumena duen zerbitzuaren erregistroan aurkeztuko dute, dela paperezko euskarrian, dela euskarri informatikoan. Ahal dela, Gizarte.net-eko «Diagnostikoa eta esku-hartze soziala» tresna informatikoaren bidez egingo da.
b) Foru-aldundiak, sartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, dagokion ebazpena eman eta jakinaraziko du.
Bi hilabeteko epea igarotzen bada ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe, etxebizitzarako prestazio osagarria emandakotzat hartuko da, nahiz eta ebazpen espresua emateko betebeharra dagoen. Ebazpenak emate hori berretsi egin behar du.
Ukatzeko ebazpena, nolanahi ere, arrazoitu egin beharko da, eta foru-aldundiak eman eta jakinaraziko du, 15.1 artikuluan adierazitako epean. Ebazpena eman den egunetik hamar egun baliodun izango dira ebazpena eskatzaileari jakinarazteko. Jakinarazpenean ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtso jar daitezkeen, zer organori aurkez dakizkiokeen eta zer epetan egin beharko liratekeen.
Etxebizitzarako prestazio osagarria emateko ebazpenean, foru-aldundiak titularrari dagokion prestazioaren zenbatekoa ezarriko du, baita titulartasun horren ondoriozko eskubide eta betebeharren zerrenda ere.
Foru-aldundiak 15.1 artikuluan adierazitako epean eman eta jakinaraziko du diru-laguntza emateko ebazpena. Ebazpena eman den egunetik hamar egun baliodun izango dira ebazpena eskatzaileari jakinarazteko. Jakinarazpenean ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtso jar daitezkeen, zer organori aurkez dakizkiokeen eta zer epetan egin beharko liratekeen.
Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru-diputatuari.

2.3 <u>Beste dokumentu batzuekiko lotura</u>

2.3.1	Aurreko serieak	Ez
2.3.2	Beheragoko serieak	Ez
2.3.3	Lotutako serieak	-Diru-sarrerak bermatzeko errenta
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	Ez

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Ez
3.2	Legezkoa/juridikoa	Ez
3.3	Zerga-alorrekoa	Ez
3.4	Informatiboa	Ez
3.5	Historikoa	Ez

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	
Guztiz ezabatzea	Bai, bulegoko artxiboan espedientea ixten denetik bost urtera. Espedienteak bizikidetza-unitateka ordenatuta badaude eta garbitzea erabakitzen bada, banakatu egin beharko dira, lehendabizi, serie horri dagozkion espedienteak.
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Bai, DPBLO
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	Dokumentu-serie honetan, Udalak onuradunaren eta Aldundiaren arteko bitartekari gisa esku hartzen du, izapidearekin lotutako dokumentazioa bidaltzeko eta sor daitezkeen aldaketak jakinarazteko, eta Aldundiaren eskumena da espedientea ebaztea. Udalean gordetzen diren dokumentuak jatorrizkoaren kopiak dira eta osatu gabe daude, ez baitute izapide osoa jasotzen.

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	Almudena Coronado Letellier (Ereiten SL)
Landa-lana egin den artxiboa/k	Oiartzungo Udal Artxiboa
Aztertutako aldien muturretako datak	
Azterketaren data	2016/08/26
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	